FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

Zurekin bat

2023an Arabako Lurralde Historikoan jarduerak eta proiektuak egiteko Vital Fundazioaren laguntza-deialdia

Arabako gizartearentzako laguntza-deialdi hau argitaratu du Vital Fundazioak, arabar guztien bizi-kalitatea hobetzera bideratutako proiektuei babesa eta bultzada emateko. Era berean, Arabako gizarte-sareko erakunde guztien partaidetza baldintza berdinetan eta lehia askean sustatzeko konpromiso irmoa du.

Vital Fundazioak, bere helburu eta balioekin koherentea izanik, era aktiboan laguntzen du Garapen Jasangarriaren Helburuetan, eta bere gizarte-ekintza ikuspegi solidario eta gaur egungotik garatzen du, Arabako Lurralde Historikoko biztanleen aurrerapen sozial, ekonomiko eta kulturala bultzatzeko xedez.

Arabako entitateek eta erakundeek proiektu bana aurkeztu dezakete gehienez.

DEIALDIAREN FASEAK

1. fasea: Eskabideak aurkeztea

2023an, Vital Fundazioak laguntza-deialdi bat egingo du, eta laguntzak eskatzeko epea urtarrilaren 16an hasiko da. Eskabideak aurkezteko azken eguna otsailaren 10a izango da, 14:00etan.

Aurkeztu diren proiektuek gehienez ere hamabi hilabeteko epean egon beharko dute amaituta, diru-laguntza emateko ebazpena jakinarazten denetik hasita.

Deialdi honetan parte hartu nahi duten gizarte-erakundeek Fundazioaren www.fundacionvital.eus/eu web orrian eskuragarri dauden inprimakiak bete beharko dituzte. Horiekin batera proiektuaren deskribapena eta kronograma aurkeztuko dira, gastuen eta diru-sarreren aurrekontua barne.

Nahitaezkotzat jotako baldintzaren bat betetzen ez bada, aurkeztutako eskaera ez da onartuko.

2. fasea: Eskabideen ebaluazioa

Proiektuak aztertzeko epea 2023ko otsailaren 13tik martxoaren 29ra bitartekoa izango da.

3. fasea: Azken ebazpena eta jakinarazpena

Vital Fundazioaren Patronatuak ebaluatuko ditu proiektuak nahiz eman beharreko laguntzak eta ebazpena 2023ko martxoaren 30etik aurrera aterako da. Ebazpen hori zuzenean jakinaraziko zaio erakunde bakoitzari, mezu elektroniko baten bidez.

Ebazpena aldekoa bada, jakinarazpen hori egiten denetik gehienez ere 15 eguneko epea izango da eskatutako dokumentazioa aurkezteko. Epe horretan aurkezten ez bada, eskaera ezetsi egingo da.

DEIALDIAREN OINARRIAK

1. **Xedea:** 2023rako deialdi honek ALHn lan egiten duten erakunde eta entitateen proiektu eta jarduerei laguntzak ematea du xede, norgehiagoka-erregimenean. Berritzaileak izan behar dira, baita eraldatzaileak ere, Vital Fundazioaren jarduera-eremuetan. Honako hauek dira Fundazioaren jarduera-eremu nagusiak:

- **Gizarte-arloa.** Pertsona guztien gizarteratzea eta berdintasuna lortzeko proiektuak eta jarduerak. Pertsona kalteberenei edo mendekotasunaren eta desgaitasunaren eremuetan premia gehien duten pertsonei nahiz haien zaintzaile eta familiei laguntzen eta aukerak eskaintzen dizkieten proiektuak eta jarduerak.

- **Hezkuntza eta Enplegua.** Haur, gazte eta helduen prestakuntza integrala osatuko duten gaitasunak, jarrerak eta balioak garatzeko hezkuntza-jarduerak eta -programak. Bazterkeria- edo kalteberatasun-arriskuan dauden pertsonak lan-merkatuan sartzeko ekintzak, lanbide-trebakuntzaren, lan-praktiken, prestakuntza-beken eta/edo ekintzailetzarekin lotutako proiektuen bidez

- **Ikerketa eta berrikuntza**. Ikerketa zientifiko eta teknikoko, garapeneko eta berrikuntzako programak, hezkuntzaren, industriaren, kulturaren, gizartearen eta abarren sektoreetan.

- **Kultura, Ondarea eta Ingurumena.** Ondare historiko kulturala eta ingurumenekoa sustatzeko eta mantentzeko jarduerak eta programak. Kultura, oro har, sustatzera, aisialdira, parte-hartzera eta balio komunitarioetara, sortzaile berriei laguntzera eta berrikuntzara, artera, etab. bideratutako proiektu eta jarduera soziokulturalak.

2. Erakunde eta entitate eskatzaileek nahitaez bete beharreko baldintzak:

- Eskabidea bete behar da eta eskatutako dokumentazio guztia erantsi.
- Legez eratuta eta dagokien erregistroan inskribatuta egotea, gutxienez urtebeteko antzinatasunarekin.
- Interes sozialeko helbururen bat duen proiektu bat aurkeztea, Arabako Lurralde Historikoan egingo dena.
- Zerga eta lan betebeharretan egunean izatea, eta urteko kontuak eta jardueren urteko memoria aurkeztea.
- Aurkeztutako proiektua kudeatzeko egitura eta gaitasun nahikoa izatea.

** Baldintza horiek betetzen ez dituzten eskabideak ez dira onartuko.*

Aurkeztu behar den dokumentazioa:

- Estatutu eguneratuak
- Dagokion erregistroan inskribatuta izatearen egiaztagiria
- Ordezkaria: ahalordeak/NAN
- Aurkeztutako proiektuaren deskribapen xehatua, aurrekontu eta guzti, gastu eta sarrera guztiak barne
- Eragin sozialaren fitxa, aurreikusitako proiektuaren helburuak kontuan hartuta, aurreikusitako onuradunen kopurua nahiz erabiliko diren neurgailuak zehaztuta
- Erakundearen urteko kontuak (balantzea eta galdu-irabazien kontua)
- Azken urtean egindako jardueren laburpena
- Elkarte-fitxa
- Kutxabanken duten kontuaren titulartasuna
- Gizarte Segurantzan eta Ogasunean ordainketak egunean izatearen egiaztagiria

3. Proiektuak: Erakunde edo entitate bakoitzak proiektu bakarra aurkeztu dezake, dagozkion definizioak eginda eta gastuen eta diru-sarreren aurrekontua txikia.

Aurkeztutako proposamenean, honako hau baloratuko da era positiboan:

- Proiektuak Fundazioaren lehentasunezko jardun-arloetan kokatzea.
- Proiektuaren izaera berritzailea, irtenbide berriak eta eraldaketa soziala sortuko dituena.
- Ohiko egitura-gastuak finantzatzea ez dakartenak.
- Beste erakunde batzuen laguntzak ere izatea.
- Euskararen erabilera, genero-berdintasuna, gizarteratzea eta boluntariotza bultzatzea.
- Bideragarritasun soziala eta ekonomikoa izatea, efizientzia-irizpideak barne hartuta, eta garatu beharreko jardueren iraunkortasuna bermatu ahal izatea.
- Arabako erakundeek garatutakoak izatea, ahal dela irabazi-asmorik gabekoak.

** Aurkeztutako proiektuak eduki beharko dituen atalen deskribapen laburra.*

Erakundearen izena:

Proiektuaren izena:

1. Proiektuaren Helburuak eta Irismena

    a. Proiektuaren deskribapena
    b. Proiektuaren helburuak

2. Proiektuaren Deskribapen Zehatza

    a. Egin beharreko ekintza zehatzak
    b. Erabili beharreko metodologia
    c. Lan-plana eta egutegia
    d. Materialak, giza baliabideak eta baliabide teknologikoak

3. Espero diren Emaitzak

    a. Kolektibo onuradunak
    b. Espero diren emaitzen deskribapena
    c. Ezarpena Arabako Lurralde Historikoan

4. Aurrekontu Xehatua

5. Proiektua Ebaluatzeko eta Jarraipena Egiteko Mekanismoak

    a. Proiektua ebaluatzeko moduaren deskribapen laburra

6. Aurreikusitako Komunikazio-Jarduerak

    a. Inpaktua eta gauzatuko diren komunikazio-elementua

4. Vital Fundazioaren ekarpen ekonomikoa: Laguntzak ahalik eta proiektu gehienetara zabaltzeko helburuz, ***eta erreferentzia orientagarri izan dadin***, honako zenbateko hauek emango dira deialdi honen bidez:

-50.000 €-tik gorako aurrekontua edo gauzatze-zenbatekoa duten proiektuak: Vital Fundazioak **gehienez ere** % 40ko laguntza emango du.
- 20.000 €-tik 50.000 €-ra bitarteko aurrekontua edo gauzatze-zenbatekoa duten proiektuak: Vital Fundazioak **gehienez ere** % 50eko laguntza emango du.
- 20.000 €-tik beherako aurrekontua edo gauzatze-zenbatekoa duten proiektuak: Vital Fundazioak **gehienez ere** % 90eko laguntza emango du.

Oro har finantzatu beharreko zenbatekoak, bai Vital Fundazioak ematen dituen laguntzetatik, bai proiektuak jasotzen dituen beste laguntza osagarri batzuetatik datorren dirua batuta, ez du gaindituko proiektuaren behin betiko zenbateko osoa.

Beste erakunde batzuek emandako baliabideak eta baterako finantzaketa formularioan adierazi beharko dira nahitaez (Elkarte-fitxa). Eskabidean gutxi gorabeherako aurrekontua onartuko da, baldin eta gerora emakida ofiziala egiaztatzen bada.

Emandako laguntzaren zenbatekoa erakunde eskatzailea titularra duen Kutxabankeko kontu batean sartuta ordainduko da. Oro har, epe bitan egingo da: gehienez ere % 75, lankidetza-hitzarmena sinatzen denean, diru-laguntza onartu denean, eta gainerakoa, azken memoria ezarritako epean aurkeztu eta onartu ondoren. Azken memoria horrek alderdi tekniko bat eta ekonomikoa jasoko ditu.

5. **Datu Pertsonalen Tratamenduari Buruzko Oinarrizko Informazioa:**

- **Arduraduna:** FUNDACION VITAL FUNDAZIOA
- **Tratamenduaren helburua**: zurekin harremanetan egotea eta komunikatzea, eta online egindako eskaerak kudeatzea
- **Eskubideak:** Hala dagokionean, datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu, horien aurka egin, datuen eramangarritasuna eskatu, tratamendua mugatu ahal izango duzu eta ez zara erabaki automatizatu hutsen helburu izango, gure pribatutasun-politika ikus dezakezun informazio gehigarri eta osoan zehazten den bezala

☐ Pribatutasun-politika irakurri eta **onartu** dut. Onarpena beharrezkoa da eskatu duzun zerbitzua eman diezazugun.

☐ Baimena eman dut Fundazioaren jardueren eta zerbitzuen **merkataritza-komunikazio elektronikoak bidaltzeko niri**. Bidaltzen dizkizugun komunikazioek, komunikazioan bertan, jasotzeari uzteko aukera emango dizute. Edozein unetan errebokatu dezakezu baimena, lopd@fundacionvital.eus helbidera mezu elektroniko bat bidaliz.